

2006KO APIRILAREN 12KO BATZARRAREN AKORDIO PROPOSAMENA, 4. PUNTUA

Ikusirik 2006ko otsailaren 14eko data eta udal arkitektu-teknikoak idatzi duen lursailaren segregazioaren txostena. Mikelasagasti baserriaren “Lasarbe Soroa” izena duen lursailaren partzela, 4.599,00m₂ erregistroko azalera eta 4.713,75m₂ benetako azalera duen udalaren jabegoa duen finkatik datorren 608,34m₂-ko segregazioa; beraz, jatorrizko finka 4.105,41m₂-ko benetako azalera eta 4.047,00m₂ erregistroko azalerekin geratuko litzatekeelarik.

Ikusirik txosten-balorazio ...

Ikusirik, “Anoeta Lantzen” merkataritza elkartearen kapital sozialaren %75 ekarpena Anoetako udalak egiteko duela, 2005eko irailaren 29ko datarekin udal batzarrak elkartearen eraketa onartu zuelarik.

Onartzen da...

LEHENA: Gaur egun belaze bezala erabiltzen den “B” lursailaren segregazioa onartzea. Aldapan dagoen lursaila. Identifikatzeko “*Lasarbe Soroa*” izena ematen zaio.

Azalera: egin berri den neurketaren arabera 608,34m₂.

Mugak:

Iparra	Regata eta segregatzen den lursailaren zatia, Anoetako udalarena (C Finka).
Hegoa	Isasti gurdi-bidea.
Ekialdea	José Maria Otaegi Durandegiren oinordekoen lursaila (Urritzeta baserriarenak).
Mendebaldea	Simon Urkolaren oinordekoen lursaila.

Onespen honek ez du benetako izaera izango Jabego Erregistroan inskribatzen ez den artean.

BIGARRENA: “Anoeta Lantzen, S.A.” erakundearen kapital sozial guztia erabat erostea eta ordaintzea, zeinaren bazkide bakarra Anoetako Udala den, HIRUROGEI MILA EHUNTA BAT EURO ETA HOGEITA BAT ZENTIMOtan (60.101,21 €) eta era honetan ordaintzea:

- 45.075,91 EURO “Hegoaldeko Lasarbe” B lursailaren jabetzaren ekarpena eginez, noren segregazioa aurreko atalean onartu delarik. Anoetako Plangintzako Arau Subsidiarioetan “S1 Lasarbe” Barrutian eta “A1 4 Hiri-Parkean” kokatzen den lursaila. Jabego Erregistroan inskribatzeko dago eta 608,34m₂-ko azalera duelarik.
- 15.025,30 EURO 2005eko ekitaldiko aurrekontutik dagoeneko eginiko ekarpenaren bitartez.

HIRUGARRENA: Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunari Anoetako Udalaren izenean egiteke dagoen ordainketa arestian aipaturiko lursailaren titulartasunaren ekarpena eginez gauzatzeko baimena ematea, baita Notario aurrera azaldu, dagokien Eskritura Publikoak sinatzeko, are, zuzendu eta osatzeko, eta Merkataritza Erregistroan Sozietatearen inskripzioa egin eta izapidetze hauek burutzeko behar diren beste guztiak egiteko ere.